


Hiru lurraldeetan Espainiako batez bestekoa baino altuagoa izan zen BPGarekiko I+Gko gastua

Gipuzkoan, %1,70 hartu zuen; Bizkaian, %1,43; eta Araban, %1,20.

2003. urtean Euskal AEn 700 milioi euro gastatu ziren Ikerketa zientifiko eta Garapen Teknologikoko (I+G) jardueretan. Gastu honetatik, 341 milioi (%48,8) Bizkaia dagozkio, 265 (%37,9) Gipuzkoari eta 93 (%13,3) Arabari, Eustatek eman dituen datuen arabera.

Aurreko urtearen aldean, I+Gko barne-gastuaren batez besteko hazkundera %4,1ekoa izan zen, eta Gipuzkoa izan zen batez besteko horren gainetik hazi zen lurralde bakarra, %16,5 hazi baitzen. Bizkaian jaitsi egin zen (%-2,8) eta Araban mantendu (%0,1).

I+Gko barne gastua



Iturria: EUSTAT

Gipuzkoan izandako gehikuntza nabari da I+Gko gastua BPGaren portzentaje gisa konparatzerakoan ere. Izan ere, balio hori %1,48koa izan zen Euskal AE guztirako eta lurraldeka, %1,70koa Gipuzkoan, %1,43koa Bizkaian eta %1,20koa Araban. Hiru lurraldeak Espainiako batez bestekoaren (%1,10) gainetik kokatu ziren.

Egikaritze-sektoreari dagokionez ere, lurralde historiko bakoitzak berezitasunak agertzen ditu. Araban, oraindik ere oso garrantzitsua da administrazio publikoaren gastua, administrazioaren meneko erakunde asko bertan kontzentratzen direlako eta aurtun I+G bideratutako baliabideak %14 gehitu direlako. Bestalde, unibertsitatearen pisuak Euskal AEko gainerako lurraldeetan duenaren azpitik jarraitzen du eta enpresen sektoreak, berriz, %2ko atzerakada izan du.

Gipuzkoan, aldiz, gastu txikiena duen sektorea administrazioa da, baina enpresen sektoreak nabarmen egin du gora (%19ko hazkundera, 2002. urtearen aldean), bere

enpresa-ehundura espezifikaren ondorioz. Maila altuari eusten dio unibertsitate-sektoreak ere, teknologia-fakultateen proportzio handiaren eraginez eta I+Gra bideratutako baliabideak %6,5 gehitzearen eraginez. Baliabide horiek Euskal AEko batez bestekoa (%3,3) bikoiztu zuten.

Bizkaiko gastua altua da sektore guztietan. Unibertsitate-sektorea nabarmentzen da, batez ere, Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia Fakultateak Leioako kanpusean kontzentratuta daudelako. Hala ere, aipatzekoa da 2003. urtean administrazio publikoaren sektoreko gastuak izan zuen hazkundera, %18 gehitu baitzen. Hala ere, enpresa-sektorean 2002an baino %5 gutxiago inbertitu zen ikerkuntzan.

I+GKO LURRALDEKAKO ADIERAZLEAK

	<u>ARABA</u>	<u>BIZKAIA</u>	<u>GIPUZKOA</u>	<u>EUSKADIKO AE</u>	<u>ESPAINIA</u>	<u>EUROPAR BATASUNA-15</u>
	2003	2003	2003	2003	2003	2002
I+G GASTUAK (%)						
BPGaren aldean	1,20	1,43	1,70	1,48	1,10	1,93
I+G GASTUAK (%)						
FINANTZAKETAREN ARABERA						
Enpresak	70,5	65,1	65,8	66,1	48,8	55,4
Administrazioa	27,4	30,9	29,6	29,9	40,1	34,7
Bestelako iturriak	0,2	0,1	0,2	0,1	5,4	2,3
Atzerria	1,9	3,9	4,4	3,8	5,7	7,6
I+G PERTSONALA (DOE)*						
Pertsonala guztira	1.597	5.308	4.448	11.353	151.487	1.984.453
Ikertzaileak	803	3.688	2.651	7.142	92.523	1.117.361

*DOE: dedikazio osoko ekibalentzia

Iturria: EUSTAT, INE(Espainia) eta ELGE(Europar Batasuna)

Finantzaketa pribatuaren garrantziak (%66,1), estatuko batez bestekoaren gainetik (%48,8) kokatzen ditu hiru lurraldeak, Alemania, AEB, Suitza eta Belgikaren parean, enpresek ikerketara bideratutako baliabideei dagokionez. Atzeritik etorritako funtsei dagokienez, 2002an baino 29 milioi euro gutxiago lortu ziren 2003an eta guztizkoaren %3,8 hartu zuten.

Gasturik handiena eta pertsonal gehien duen **diziplina zientifikoa** ingeniarietza eta teknologia da herrialde guztietan. Lurralde historiko bakoitzak diziplina horretara dedikatu zituen gastu-portzentajeak honakoak izan ziren: Gipuzkoak %86%, Bizkaia %72 eta Arabak %74.

Euskal AEn jarduera nagusi gisa I+Gko jarduerak dituzten enpresak kontuan hartuta, Gipuzkoan kokatu ziren horien %50, Bizkaian %32 eta Araban %18.

Manufaktura-enpresei aplikagarri zaien **teknologia-mailakako** sailkapenaren arabera ere alde esanguratsuak dira lurraldeen artean. Araban goi-mailako eta erdi-goi mailako teknologiko sektoreetan batzen diren enpresek egindako barne-gastuak manufaktura-industriak egindako guztizko gastuaren %59 hartu zuen, Bizkaian %70 eta Gipuzkoan %75.

Emakumeek I+G jardueretan duten **parte hartzeari** dagokionez, Araban eta Gipuzkoan langile guztien %27 bakarrik ziren emakumezkoak; Bizkaian, ostera %35. Ehuneko guztiak estatuko batez bestekoaren azpitik kokatu ziren, %37ra iritsi baitzen.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Susana Rabuñal Mol

Tlf:+34-945-01 75 48 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-Bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp